

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

Euskarazko Hiztegi Txikia

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-05-09

1	Izena	Euskarazko Hiztegi Txikia
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Turismoa, Sentsibilizazioa
4	Kontakturako helbidea edo telefonoa	alex_aisa@donostia.eus/ 943 481748
5	Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...)	www.donostiaeuskaraz.eus @euskaraz

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIKAPENA

1	Praktikaren azalpena	Patrikako Euskarazko Hiztegi Txikian euskarazko oinarritzko hainbat hitz eta esaldi bildu dira Donostiara etortzen den bisitariak ezagutu eta erabili ditzan (agurrak, lekuen izenak, egunak, hilabeteak, zenbakiak...) Hitz horiek guztiak zortzi hizkuntzatan kaleratu dira: euskara, gaztelania, galegoa, katalana, frantsesa, ingelesa, italiara eta alemana.
2	Praktikaren azalpenaren laburpena	Hiztegia bost zatitan banatu da: lehenengoan agurrak azaltzen dira (gabon, kaixo, ongi etorri, eta abar); bigarrean leku izenak eta hauetara joateko oharrak (ezkerrera, behean, urruti, turismo bulegoa, botika...); hirugarrenean ostalaritzarekin zerikusia duten hitzak (gela bikoitza, jatetxea, ogitartekoa, eguneko menua,...); laugarrenean egunak, hilabeteak, urtaroak,... eta azkenik zenbakiak. Bestalde, euskararen historia eta egoerari buruzko zenbait azalpen eta datu ageri dira. Esaterako Donostiako edota Gipuzkoako hiztunei buruzko datuak ematen dira. Hiztegi horiek doan banatzen dira turistak dabiltzan lekuetan: turismo bulegoetan, hoteletan, hainbat taberna eta museotan, Tabakalera, eta abar. Horrez gain, kanpotik kongresuetara eta kultur ekitaldietara datozen profesionalei ere banatzen zaie: Zinemaldian, Jazzaldian, Dferian, eta abar
3	Aurrekariak (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	

4	Helburuak	Turistak eta bisitariak sensibilizatzeko egitasmoa, bertako errealitate linguistikoaren berri emanez eta hitz batzuk euskaraz erabiltzeko aukera eskura jarritz.
5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	Hiztegi horiek doan banatzen dira turistak dabiltzan lekuetan: turismo bulegoetan, hoteletan, hainbat taberna eta museotan, Tabakalera, eta abar. Horrez gain, kanpotik kongresuetara eta kultur ekitaldietara datozen profesionalen artean
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	Bagera, Donostia Turismoa, Donostia 2016
7	Inplementazio-epea	2016an. Aurrerantzean egitasmoarekin jarraitzeko asmoa dago

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	80.000 ale urtean
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	9.000 euro
10	Lortutako emaitzak	2016ko urtarriletik maiatzera 45.000 ale banatu dira
11	Dokumentazioa erreferentziatzko materiala	http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/euskara-ikasi/sekzioak/turistentzako-euskarazko-hiztegia
12	Aurkezpen bideoa	Webean bertan dago azalpen bideoa: http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/euskara-ikasi/sekzioak/turistentzako-euskarazko-hiztegia
13	Intereseko informazio gehigarriak	http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/euskara-ikasi/sekzioak/turistentzako-euskarazko-hiztegia